



TA21EKO BEHATOKIA
OBSERVATORIO AL 21
GIPUZKOA



GIPUZKOA

zurekin, aurrera

GARAPEN IRAUNKORREKO
DEPARTAMENTUA
DEPARTAMENTO DE
DESARROLLO SOSTENIBLE

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekintza Planen ebaluaketarako euskarri Zerbitzua (2010)

EMAITZA OROKORREN TXOSTEN LABURTUA
2011EKO MAIATZA

PARTE HARTU DUTEN UDALERRI ETA ESKUALDEAK:
Abaltzisketa, Aduna, Alkiza, Amezketeta, Andoain, Arama,
Arrasate-Mondragón, Asteasu, Astigarraga, Azpeitia, Beasain,
Belauntza, Berastegi, Bergara, Berrobi, Deba, Debarrena,
Donostia-San Sebastián, Eibar, Elgoibar, Errenteria, Goierri,
Hernani, Hondarribia, Ibarra, Idiazabal, Ikaztegieta, Irun,
Irura, Larraul, Legazpi, Oinati, Ormaiztegi, Tolosa, Villabona,
Zarautz, Zizurkil, Zumarraga



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ekintza Planen Ebaluaketarako euskarri Zerbitzua (2010)

EMAITZA OROKORREN SINTESI TXOSTENA

2011EKO MAIATZA

ESKUDUN ZUZENDARITZA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapen Iraunkorreko Departamentua
Beatriz Marticorena. Iraunkortasun Saileko burua
Iker Zubimendi. Ingurumeneko goi mailako teknikaria

LAGUNTZA TEKNIKOA

MINUARTIA ENEA

Ainhoa Gea. Industria ingeniaria. Koordinazioa
David Pon. Ingurumen Zientzietan lizentziaduna. Txostena idazteko arduraduna
Nuria Galceran. Ingurumen Zientzietan lizentziaduna
Patricia Gomez. Pedagogian lizentziaduna eta Gizarte Hezkuntzan diplomaduna
Eider Larrañaga. Biologian lizentziaduna
Ana Lopez. Ingeniari Agronomoa
Aiala Zubieta. Biologian lizentziaduna



EDUKIEN AURKIBIDEA

SARRERA	1
GIPUZKOAKO TOKIKO AGENDA 21EKO BEHATOKIA: TOKIKO IRAUNKORTASUNAREN POLITIKAK ETA HELBURUEN LORPENAK EBALUATUZ	1
TOKIKO ESPARRUKO HELBURU ETA ONURAK	1
ALDUNDIAREN ESPARRUKO HELBURU ETA ONURAK	2
IKUSPEGI METODOLOGIKOA.....	3
<i>Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen kudeaketa aktiboa.....</i>	3
<i>TA21eko Ekintza Planaren gauzatze maila ebaluatzea eta urteko programazioa.....</i>	4
2010 ZERBITZUAREN IRISMEN ETA EZAUGARRIAK	6
EBALUATUTAKO EKINTZA PLANEN EZAUGARRIAK	7
TOKIKO AGENDA 21EKO EKINTZA PLANEN EZARPENA EBALUATZEA.....	9
PLANAREN EZARPEN GLOBALA	9
PLANAREN EZARPEN MAILAREN GEHIKUNTZA AZKEN URTEAN.....	12
EKINTZEN GAUZATZE MAILAREN EGOERA GLOBALA	13
<i>Tokiko Ekintza Planen gauzatze egoera udalerriz udalerriz</i>	14
EZARPENA GAI EREMUAREN ARABERA (2009)	15
EKINTZEN GAUZATZE MAILA GAIKA (2009)	17
ZEHARKAKOTASUN MAILA.....	18
HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ETA BARRUKO KOORDINAZIOAREN EBALUAZIOA	19
HERRITARREN PARTAIDETZA: PARTE HARTZEKO LANABESAK	19
UDALERRI BARRUKO KOORDINAZIOA: KOMUNIKAZIO BALIABIDEAK	21
GFA-REN POLITIKA ESTRATEGIKOEN ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA TA21-AK EZARTZEN LAGUNTZEKO	22
SARRERA	22
HELBURU NAGUSIA	22
BERARIAZKO HELBURUAK	22
TA21 EZARTZEKO GFAREN EUSKARRI-ILDO ZUZENEN IRISGARRITASUNA.	23
<i>Finantzatutako proiektu kopurua eta bideratutako aurrekontu globala.....</i>	23
<i>Finantzatutako proiektuen banaketa gaika.....</i>	24
<i>Aalborgeko konpromisoekin finantzatutako proiektuen banaketa.....</i>	25
EKINTZA PLANAK EZARTZEKO LAGUNTZEN ERAGINA ETA INGURUMENAREN HOBEKUNTZA	26
<i>Ekintza Planen ezarpenaren eragina.....</i>	26
<i>Ingurumen hobekuntzetan izandako eragina, euskarri ildoekin induzitua</i>	26

Gipuzkoako Tokiko Agenda 21eko Behatokia: tokiko iraunkortasunaren politikak eta helburuen lorpenak ebaluatuz

Gipuzkoako Tokiko Agenda 21eko Behatokia 2005. urtean jaio zen Gipuzkoan iraunkortasunak eta Tokiko Agenda 21ek zituzten egoera eta joerak ebaluatzeko eta jarraipena egiteko, prozesuen garapen osoari laguntzeko eta informazio hori administrazioetara eta gizartera helarazten laguntzeko.

Sortu zenetik, Behatokiak Udalsarea 21eko Gipuzkoako udalei lagundu egin die Tokiko Agenda 21eko markoaren barruan aurrera eraman dituzten iraunkortasun politiken gauzatze mailaren **urteko ebaluazioan**. Horretarako, Udalsarea 21eko udal guztientzat metodologia bera erabili da, eta guztietan Udalsarea 21ek kideen zerbitzura jartzen duen Mugi 21 lanabes informatikoa erabili da. Ebaluazio honetan udaletako ehunka teknikarik hartu dute parte, eta horrek Tokiko Agenda 21eko zeharkako inplikazioari mesedea egiten dio, planen gauzatzearen kalitatea dinamizatuz eta hobetuz. Orobat, **helburuen araberako kudeaketa publikoa eta emaitzen ebaluazioa** oinarri dituen kulturaren alde egiten da.

Ekintza Planen gauzatzearen **ezagutze sakona** abiapuntu, Gipuzkoako eta herritako iraunkortasun adierazleek ematen duten informazioa lagun, Behatokiak **garapen iraunkorrari buruzko egungo politika publikoen eraginkortasuna ebaluatzen du**, eta, horrekin batera, foru Administrazioak

etorkizunean aurrera eraman beharreko **ekintzak zehazten ditu**.

Ekintza horiek Behatokiak berak kudeatzen dituen zenbait laguntza zerbitzu dakartzate: besteak beste, TEPEn ekintzen finantzazioa, 21 Bulegoentzako laguntza eta laguntza teknikoa. Zerbitzu horiek Foru Aldundietako departamentuek udalei eskaintzen dizkieten baliabide tekniko eta ekonomikoekin osatzen dira. Baliabide horiek iraunkortasuneko tokiko politiken oinarritzko diren eremuetara iristen dira: hondakinen kudeaketa, energia, ura, mugikortasuna, bioaniztasuna edota hiritartzearen planteamendua.

Behatokiaren esparruan, aurrenak izan gara estatu osoan urtean burututako **Tokiko Agenda 21aren Ekintza Planak ebaluatzeko Zerbitzu euskarria erabiltzen**. Izatez, **udalen artean jarraipen sistematizatu eta homogenea egiteko baliabideren bat** eskuratu nahian ari ginen aspalditik, tokiko iraunkortasun politiken garapen maila jakiteko. Honekin, espero dugu abian diren prozesuen indar eta ahulezien **ikuspegi zorrotz eta objektiboa** lortuko dugula, eta horrekin guztiarekin, **bai udalen, bai Foru Aldundiaren ekimena, modu iraunkorrean birbideratu eta optimizatu** ahal izango dugula.

Tokiko esparruko helburu eta onurak

Planaren ekintza bakoitzean burutu diren jarduerak xehetasunez ezagutzea da Ekintza Planaren gauzatzea ebaluatzeko prozesuaren helburu nagusia. Ebaluazio horrek zenbakiz adieraziko du Plana onartu zenetik udalerrri bakoitzean urtez urte izan duen ezarpen maila. Tokiko esparruari dagokionez, honako hauek dira Planaren helburu bereziak:

- Ekintza Planak udalerrri bakoitzean duen **ezarpen maila globalki ebaluatzea** aldizka-aldizka eta urte bat besterekin alderatzeko moduan, baita beste udalekin alderatzeko moduan ere.
- Ebaluazio horretan oinarrituz, Ekintza Planaren **ezarpenaren ahuleziak eta indar nagusiak** identifikatzea, betiere kontuan izanik ekintzen tipologia, gaiak, egileak eta bestelako aldagaiak. Horrek guztiak Plana optimizatzeko aukera eman behar du.
- Ekintza Planaren edukiak urtean behin edo urte anitzeko aldiaren behin **eguneratzea** edo aldatzea, betiere egindako ebaluazioan oinarrituta eta irizpide teknikoak kontuan hartuta.
- **Planaren** edukia xehetasunik handienaz ikuskatzea, bere ezarpena oztopa dezaketen **zehaztasun gabeziak antzeman eta garaiz zuzentzeko**.
- Era zehatz eta objektiboan Planaren esparruan gaur arte burututako **jardueren bilduma** egitea, baita oso-osorik ezagutzen ez direnena ere.
- **Udal eragileek Planaren ezarpenean izan duten parte-hartzea** norainokoa izan den jakitea.
- Planaren gauzatze mailari buruzko informazioa eskuratzea udalerriko biztanle eta gizarte eragileei eta bereziki Planaren diseinuan eta/edo horren jarraipenean parte hartu dutenei **jakitera emateko**.
- **Barruan hausnarketa prozesu bat** dinamizatzea, parte hartzen ari diren eragileak, Tokiko Agenda 21eko koordinatzaileaz gain, prozesuan gehiago inplikatzeko.
- **Aurrerakuntzarik ez duten ekintzak** identifikatzea, **arrazoiak baloratuz** eta irtenbideak bilatuz, etorkizunean aurrera egin dezaten.
- Hurrengo urterako ekintza plana **programatzea**, betiere prozesuan sartuta dauden eragileak datozen urteetarako programatu dituzten jarduerak kontuan izanik.

Aldundiaren esparruko helburu eta onurak

Foru Aldundiaren esparruari dagokionez, Zerbitzuak bi aldetatik eragin nahi du. Alde batetik, Aldundiak udalen erakunde euskarri gisa harturik; bestetik, lurralde politiketan eskuduntzak dituen erakunde gisa. Honakoak dira, beraz, Aldundiaren esparruko helburu bereziak:

- **Gipuzkoako udaletako ekintza planen ezarpen egoera zertan den** ahal den erarik objektibo eta sistematikoenean **ezagutzea**, baita plan horien garapen osoa lortzeko dauden **zailtasun** nagusienak ere. Ezagupen horiek baliagarriak izango lirateke iraunkortasunaren arloko **politika publikoak ezartzerakoan Foru Aldundiaren laguntzak bideratu eta doitzeko**.
- Gipuzkoako Foru Aldundiak udalentsat egokitutako diru **laguntzen eragingarritasuna** eta diru laguntza horiek udalerriko iraunkortasuna hobetze bidean izan duten eragina **ebaluatzea**.
- Tokiko Agenda 21eko prozesuak ikuskatzen eta kudeatzen laguntzea.


Ikuspegi metodologikoa

Tokiko Agenda 21eko Ekintza Planen kudeaketa aktiboa

Tokiko Agenda 21eko prozesuak beheko irudian agertzen diren faseetan garatzen dira: (I) **Abian jartzea**, (II) **Diseinua** (barruan dira diagnostikoa eta plangintza), eta (III) **Ezarpena eta jarraipena**. Azken fase hori aurreratuta dagoenean, ikusketa egiten da diagnostikoa eguneratuz eta plan berri bat eginez.

Irudi honetan bertan ikus daitekeenez, TA21en ezarpenak bi baliabide osagarri gehitzen ditu prozesuaren jarraipena egiteko:

- **Ekintza Planaren gauzatze maila ebaluatzea:** Ekintza konpromisoen betetze maila ebaluatzeko (Planaren ekintzak)
- **Tokiko Iraunkortasunaren adierazleen kalkulua:** udalerrriaren egoera hobetzeko helburuen lorpena ebaluatzeko (Planaren iraunkortasun arloko helburuak eta oro har Aalborg-eko Konpromisoak)



1. irudia. Tokiko Agenda 21en prozesuaren eskema

Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa (IHOBE, 2006).

Azken urteetan ikusi denez, Tokiko Agenda 21en ezarpen eragingarria lortzeko Plana (urte anitzeko plangintzetan banatua) programazioaren ohiko praktikarekin eta udalaren kudeaketaren garapenearekin (ohiz urteko epeetan edo aldi txikiagoetan) lotu behar da. Horrela, bada, jardueren mugarrak hurbilagoak eta ugariagoak izan behar dira, Planaren aplikazio konkretu eta ikusgarriagoak lortzeko.


Inguruabarrak horrela, badirudi oso egokia dela **Ekintza Planaren urteroko kudeaketa** ezartzea eta horrekin urtero aukera izatea

honako alderdien lorpena baloratu eta komunikatzeko: iraunkortasun helburuak (iraunkortasunaren adierazleak), Tokiko Agenda 21eko jardura burutuak (Planaren gauzatzea ebaluatzea), eta hurrengo urtean egingo diren jarduerak ezartzea (Planaren urteroko programazioa), betiere eta ahal bada udalaren aurrekontuak kontuan izanik.

Ekintza Planak urtero ebaluatu eta programatzeak aukera ematen du udalaren hainbat zerbitzu inplikatzeko (**zeharkakoa**), Ekintza Plana udalaren egunean eguneko kudeaketara gehitzea (**operatiboa**) eta

partaidetza organoak sendotzea (**partehartzailea**). Hiru alderdi horiek, Tokiko Agenda 21en ezarpenean funtsezkoak direnak, izan ohi dira era honetako prozesuetan antzematen diren zailtasun nagusienak.

Ondorengo irudian ikus daiteke nola erlazionatzen eta hedatzen diren denboran zehar hiru prozesu horiek:



2. irudia. Tokiko Agenda 21en urteko kudeaketaren zikloa

Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa (IHOBE, 2006).

TA21eko Ekintza Planaren gauzatze maila ebaluatzea eta urteko programazioa

Ekintza Planaren gauzatzea ebaluatzeko metodologia Udalsarea 21en esparruan garatu zen, EAEko udal guztien arteko emaitzak alderatu eta sendotu ahal izango direla bermatzearen. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Planak ebaluatzeko Programa Esparrua izan zen lehen ekimena, oro har, udal guztietan ezartzeko aurkeztu zena, eta horrek metodologia optimizatzen eta sendotzen lagundu zuen. Ebaluazio prozesuak sareko baliabide komunetan dauka oinarria, hala nola TA21eko kudeaketa integraturako MUGI 21 aplikazio informatikoa, kideak diren udal guztietan instalatuta dagoena; edota erreferentziako metodologia gidan.


Prozesua, 3. irudian grafikoki erakusten denez, zenbait eginkizunen bidez burutzen da eta Planeko ekintzen burutzapenean inplikaturak dauden **udal zerbitzu** guztien partaidetza eskatzen du, baita Tokiko Agenda 21eko koordinatzailearena eta kanpoko laguntza teknikoarena ere, horiek baitira **talde ebaluatzailea**.

Prozesua honetan datza: eragile guztiek TA21eko Ekintza Plana gauzatzeko urtean burututako jardueren informazioa xehetasunez biltzen dute; informazio hori MUGI 21ean behar bezala sartzen da; eta horren arabera, laguntzaileek kanpoko ebaluazio sistematikoa egiten dute planen ekintza bakoitzaren gauzatze mailaren inguruan. Ondoren, emaitza

haztatuak emendatuz, Planaren ezarpen maila globala lortzen da.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Planak ebaluatzeko Zerbitzuaren esparruan bi laguntza tipologia ezarri dira, udal prozesua koordinatzen duen pertsonaren rola arabera eta kanpoko laguntza teknikoaren arabera. Zerbitzuan lehenbiziko aldiz parte hartzen duten udalek lehenengo ebaluazioa egingo dutenez, **Laguntza Integratua** jasoko dute. Ekintza Planaren gauzatzeko maila lehenik ere

ebalatu izan dutenek, ordea, **Laguntza Sinplifikatua** jasoko dute, eta horretan koordinatzaileak eginkizun gehiago bereganatzen ditu. Eredu honekin hasierako euskarri indartu bat bideratu nahi da, eta aldi berean udalen lidergo handiagoa, ahalegina eta inplikazioa sustatu gerora begira. Horrekin guztiarekin teknikoki eta ekonomikoki bideragarria den programa egin nahi da, gaian interesatuta dauden udal guztietara hedatzeko.



3 Irudia. Ekintza Planaren ezarpen maila ebaluatzeko prozesuaren faseen oinarritzko eskema

Iturria: Euskadiko udaletan Tokiko Agenda 21-en ekintza planen urteko Programaziorako eta Ebaluaziorako gida metodologikoa (IHOBE, 2006).

2010 ZERBITZUAREN IRISMEN ETA EZAUGARRIAK

Zerbitzua 2005. urtean abian jarri zenetik, parte hartzeko interesa erakutsi duten udalen kopurua gehituz joan da era nabarmen eta etengabean. Hala, 2010. urtean 36 udalerrri eta 2 eskualde zeuden Programan.

Azpimarratzekoa da **prozesu horiek guztiek udaletan lortu duten sendotasuna**. Udal horiek, lehen urtean ebaluazio integratua eskuratu dutenean, Zerbitzuko bilakaera sinplifikatuko esparruan jarraitzeko hautua egin dute, eta ondorioz **bigarren urtetik aurrera programara konpromiso handiagoak eta baliabideak ekartzen jarraitu dute**. Horrela, Zerbitzua garatzeko foru baliabideak optimizatzeaz gain, udalerrietan prozesua hobeto integratzen eta bere egiten dute, eta hori oinarritzko baldintza da prozesuak arrakastarik izango badu.

Horrela, 2008. urtetik aurrera, Zerbitzuari adierazgarritasuna eman nahi izan zaio emaitzak aurkezterakoan, hau da, komunikatzeko gaitasuna gehitu zaio. **Diapositibak egin dira** udaletan erakusteko eta udalen web orriak aukeratu, emaitzak herritarren aurrean aurkezteko.

TA21aren koordinaziorako barruko mekanismoen ebaluazio sinplifikatuarekin ere aurrera egin da, baita **parte-hartzeko prozesuekin** ere. Ebaluazio horren kalitatea etengabe berritu eta egoeraren argazki zehatzago lortzearen, galdetegiaren atal batzuk egokitu dira. Horrekin guztiarekin TA21en ebaluazioaren ikuspegia hainbat aldagarrietara (adibidez, zeharkakotasuna eta lortutako partaidetza) zabaltzen jarraitu nahi


da, eta programan parte hartzen ari diren udalek elementu horiek aktibatzekeo duten gaitasuna aztertu nahi da.

2010eko ebaluazioan, **6 laguntza sinplifikatuak izaera aurreratua** izan dute. Horrek esan nahi du bereziki lan egin dela planaren urteko programazioaren prozesuan eta Laguntza Teknikoak gainbegiratutako autoebaluazioa egin dela. **herri hauek dira: Arrasate, Azpeitia, Donostia, Legazpi, Tolosa eta Zarautz.**

2010. urtean 4.996 ekintza ebaluatu dira; 21.630 udal eragilek hartu dute parte prozesu horietan Tokiko Agenda 21eko koordinatzaileei prozesu horien berri emanez. Hori % 37ko eta %46ko hazkundea da hurrenez hurren 2009. urtearekiko (3.638 ekintza eta 433 agente). 2010ean zerbitzu hori Lurraldeko udalerrietako % 50k jaso dute, zeinak Gipuzkoako biztanleen % 76 biltzen baitituzte. Ikusten denez, Zerbitzua sendotzen ari da, eta orain arte egindakoak informazio nabarmena ematen du nola tokiko iraunkortasun politikei buruz hala bere ezarpenaren ebaluazioari buruz. Bestalde, tokiko eragile teknikoen inplikazioak beste eragile batzuk erakarri ditu. Horiek guztiek urtean behin beren kudeaketaren emaitzak ikusten dituzte islatuta eta ebaluatuta, eta bere burua politikoki eta sozialki onartuta.

4.996 ekintza
630 parte hartzen duten eragileak

Programan parte hartutako udalerrri kopuruaren eboluzioa




4. irudia. Zerbitzuan parte hartzen ari diren udalen kopuruaren bilakaera *Iturria: Bertan egina*

Ebaluatutako Ekintza Planen ezaugarriak


Guztira 38 ekintza plan ebaluatu dira, 2010. urteko Planak ebaluatzeko laguntza Zerbitzuaren barruan. Plan horiek guztiek, egitura formal homogeneous badute ere, badituzte ezberdintasunak, hala nola kontuan izan diren ekintza kopuruari dagokionean edota gaikako esparruei emandako garrantziari dagokionean. Planen ezaugarri horiei dagokienez, honako alderdiak azpimarratu behar dira:

- Ekintza planetako ekintzen batez bestekoa apur bat jaitsi da 2009tik 2010era, 135etik 131ra. Horren arrazoia da sartu berriak diren udalerrietako Planek ekintza gutxiago dituztela. Hala ere, eragile kopurua egonkorra izan da, batez beste 16 eragilerekin 2009an eta 2010ean.
- 15.000 biztanle baino gehiagoko udalerririk bakarrik aztertuz gero, nabarmentzen da ekintza kopuruaren batz bestekoa txikiagoa dela 2010ean 2009an baino (223, 189rekiko) eta gutxiago direla eragileak ere (30, 21ekiko). Arrazoia hau da: azken urte honetan 15.000 biztanle baino gehiagoko bi herri sartu dira (Irun eta Hondarribi), eta horietan planak murriztagoak dira eta eragile gutxiago hartzen dituzte; orobat, talde horretan pisu handia dute Arrasate, Tolosa eta Zarautz bezalako herrietako bigarren belaunaldiko planek, zeinak errealitateari lotuago dauden planen alde egiten baitute, plan horiek luzeagoak izanik denboran, Udalsarea 21 udalerrietako ekintza planak berrikusteko gida berriari jarraikiz.
- Ekintza eta Planean sartuta dabilen eragileen batz bestekoa udalerrien tamainarekin bat dator; horrenbestez eta salbuespenak salbuespen, planetan egin beharreko ahalegina udalerrien tamainara egokitu nahi izan da.
- Hala ere, esan behar da Plan desberdinen edukietan dauden aldeak ezberdintasun handiak dakartza Planak gauzatzeko udal bakoitzak egin behar duen ahaleginean. Ondorioz, udalen artean planaren ezarpenari buruz egin daitezkeen konparazioetan tentu handiz jokatu behar da, eta hola egindako konparazioei orientazio jitea baino ez zaie eman behar.
- Azpimarratu behar da, halaber, handia dela Ekintza Planetan kontuan izan diren gaien dibertsifikazioa: lurralde eremuarekin zerikusi dutenak, % 25,1; ingurumenarekin, % 40,5; eta ekonomia eta gizarteari lotutakoak –azken urteetan geroz eta gehiago dira– % 34,4. Esan behar da, horiek guztiek pisu bereziki nabarmena dutela udal txikientzat (2009ko ebaluazioaren datuak).
- Bereizi hartu behar dira TA21eko ekintza planetan Aldaketa Klimatikoaren aurkako Borrokaren Udal Programa dutenak, horrela ekintza kopuruak gora egiten baitu. Hori da Donostiaren, Legazpiren, Tolosaren eta Zarautzen kasua.

Ekintzen batez bestekoa eta Planetan inplikaturako eragileak udalerrien tamainaren arabera (2009)




Ekintzen batez bestekoa eta Planetan inplikaturako eragileak udalerrien tamainaren arabera (2010)



5. irudia. Ekintzen batez bestekoa eta Planetan inplikaturako agenteak udalerrien tamainaren arabera Iturria: Bertan egina


Ekintzen banaketa gai esparru nagusienetan (2009)



Beste gai esparruak: Demografia, Klima aldaketa eta inpaktu globala, Bizikidetzeta eta Ingurumen arriskua.

6. irudia. Ekintzen banaketa gai esparru nagusien arabera (2009)

Iturria: Udalsarea 21eko (Mugi 21) Idazkaritza Teknikoak emandako informean oinarriturik, bertan egina



7. irudia. TEPEn jardura kopurua udalerriz udalerriz

Iturria: Bertan egina

Planaren ezarpen globala

Planeko ekintza bakoitzaren gauzatze mailari buruzko ebaluazioan oinarrituta, ekintza horiek 5 kategoriatan sailkatu dira: amaituak, amaitzen, aurreratuak, hasita eta hastekoak. Hori kontuan izanik, Planaren ezarpen globala erabakitzen da urte barrurako.

Zerbitzuaren esparruan bestelako gauzatze epea duten planak ebaluatzen dira. Hala, badira udal batzuk zortzi urte daramatzatenak Plana gauzatzen; beste batzuk, ordea, Planaren diseinua berriki bukatu dutelako, lehen urtean baino ez daude. Egoera horren ondorioz, gauzatzen ari diren edo gauzatu diren urtea kontuan izanik alderatu behar dira planak.


Planen ezarpen maila baloratzeko orduan, helburutzat jo da ekintzen % 60 gauzatzea 5. urtean, erreferentzia hori EAEko Tokiko Ekintza Plan-TA21 guztiek baitute oro har.

Lortutako emaitza nagusiak era honetara labur daitezke:

- Gipuzkoako ebaluatutako Ekintza Planen indarraldiko hirugarren urtean, % 33,8koa da batez besteko ezarpen maila, hots, hiru urteko gauzatze aldiaren dauden planentzat aurreikusi denaren azpitik, aurreikuspen hori % 39koa delako. Hala ere, 2008ko batz besteko datu berdinarekin alderatuta, apur bat igo dela ikusten da (% 32,4tik % 33,8ra).
- Planen batez besteko ezarpena mailaz maila areagotzen da gauzatze urteek aurrera egin ahala, gauzatze erritmoa nahiko litzatekeena baino txikiagoa izan arren, helburuaren % 13 txikiagoa gutxi gorabehera. (ikusi 8. irudia).
- Ezarpenaren bilakaera ereduaren lehenbizi azken Planek, hau da, gauzatze aldiaren bigarren edo hirugarren urtean daudenean, ezaugarritzen dute, horiek ezarpen erritmo handiagoa erakusten dutelako. Kontuan izan behar da bigarren edo hirugarren urtean Planak hobeto diseinatuta daudela, laguntza zerbitzuak ere hobeto egituratuta daudela eta udalez gairik administrazioen laguntzak, adibidez, GFarenak, handiagoak direla; gainera, prozesuak ere jadanik hobeto integratuta daude udalaren antolamenduan. Bestalde, badirudi gauzatze aldiko 4. edo 5. urtean dauden Plan askok agortu dutela beren indarraldia eta Planaren edukia geroz eta urrutiago dagoela udalen premietatik. (2008ko batz besteko gauzatze maila 6. urterako % 51,1 zen; 2010ean, berriz, % 62,8).
- 2010eko Zerbitzuan bigarren belaunaldiko lehenengo planak ebaluatu dira, **EAEko udalerrietako Ekintza Planak Berrikusteko Gida Metodologikoa - Tokiko Agenda 21**erri jarraikiz. Plan horien ezarpen maila gainerako udalerriek lortutako batz bestekoa baino altuagoa izan da, eta ia helburua beteta: lehenengo urtean, % 18; eta bigarrean, % 28,5.
- Udalerrien % 11 (Bergara, Amezketa, Zumarraga eta Donostia) helburuetan ezarritakoa baino abiada hobean ari dira planak ezartzen.
- Bestalde, udalen % 24 lortu nahi den ezarpen helburuaren azpitik dabilta, gauzatze urtearen arabera lortu nahi denaren % 20, alegia. (Ikusi 9. irudia).
- Hala ere, badira zenbait udalerrri, ezarpen mailaren inguruko helburuen azpitik ibiltzeaz gain, azken urtean gauzatze erritmo apalagoak erakusten dutenak (ikusi 10. irudia). Kasu horiek oso baldintzatuta daude lidergo politikorik ezarengatik, TA21en udal arduradun ezarengatik edo plan zaharren indarraldia agortzeagatik.


- Udalen tamainari dagokionez, 15.000 lagunetik gorako biztanleria duten udalek biztanle gutxiago dutenek baino ezarpen maila baxuagoa dutela ikusten da (ikusi 11. irudia).

Gipuzkoako Planen batez besteko ezarpenaren bilakaera helburuarekiko




8. irudia. Planen batez besteko ezarpenaren bilakaera helburuarekiko Iturria: Bertan egina

Udalerrietan gauzatutako Planen erritmo egokiera



9. irudia. Udalerrietan Planen exekuzio erritmoaren egokitzapena Iturria: Bertan egina


Helburuarekiko ezarpen maila, udalerrri eta gauzatze urteka



10. irudia. Ezarpen maila udalerriz udalerrri eta exekuzio urtea helburuarekiko

Iturria: Bertan egina

Ezarpen-maila udalerrriaren tamainaren arabera (3. gauzatze urtea)




11. irudia. Ezarpen maila udalerrriaren tamainaren arabera

Iturria: Bertan egina

Planaren ezarpen mailaren gehikuntza azken urtean

- Ebaluatutako azken urtean, udal guztien arteko batez besteko ezarpen mailak % 9,9ko gehikuntza izan du, hau da, urte bakoitzean ezarpen optimotzat ezarritako % 10,5eko helburuaren parekidea.
- Azken urtean antzeman denez, 14 udalerrri dira bere Planen ezarpen mailan gehikuntza lortu dutenak, hots, ezarritako balio helburua gainditu dutenak. Beste muturrean 24 udalerrri dira ezarritako helburutik behera dabiltzanak, eta horietan bada udal talde txiki bat, hainbat faktoreren eraginagatik, itxuraz beren Planen ezarpenean ez aurrera ez atzera egiten dutenak.



12. irudia. Planaren ezarpen mailaren gehikuntza azken urtean

Iturria: Bertan egina


Oharra: Ez dira kontuan hartu planaren lehenengo urtea bakarrik ebaluatu duten udalerririk: Azpeitia eta Tolosa

Ekintzen gauzatze mailaren egoera globala

Planaren ezarpen maila globalaren azterketarekin batera, bidezkoa da jarduera multzoaren gauzatze egoera ebaluatzea metodologian ezarritako 5 kategoriak (amaituak, amaitzen, aurreratutak, hasita eta hastekoak) kontuan izanik. Kasu honetan honako alderdiak azpimarratu behar dira:

- Planen batz besteko gauzatze epea 4 urte da. Ekintzen % 82 (4.096) 2010ean hasita daude gutxienez, eta % 18 bakarrik daude hasteko. Portzentaje hori nabarmen gutxitu da 2009ko ebaluazioarekiko, orduan hasteko zeuden ekintzak % 34 baitziren.
- Planen gauzatze egoeran nabarmendu behar da jardueren % 71 hasita, aurreratuta edo amaituta daudela. Hori horrela izateak erakusten du, datorren urtean gutxienez aurtengoaren antzeko erritmoan mantendu ahal izango dela gehikuntza, Planak gauzatzen ari direlako.

Gipuzkoako Planetako ekintzen gauzatze-egoera




13. irudia. Planetako ekintzen gauzatze egoera

Iturria: Bertan egina

Tokiko Ekintza Planen gauzatze egoera udalerriz udalerrri

- Ebaluatu diren udalerriek gauzatze maila desberdinak erakusten dituzte beren ekintzei dagokienez; alabaina, ekintzen gauzatze maila horiek era guztietakoak dira, amaituta daudenetatik hasteko daudenetara arte.
- Aipatzekoa da erdibideko gauzatze mailakotzat sailkatutako ekintzen garrantzia, hala nola “aurreratuta” daudenenak eta bereziki “hasita” daudenenak. Azken horiei dagokienez, esan behar da, baliabide ekonomiko eta teknikoak jaso badituzte ere, kontuz ibili beharrekoak direla jasotako laguntza horiek ez nahikoak edo jarraipenik gabeak izan daitezkeelako, eta horrek ekintzak gauzatzea oztopa dezakeelako.

TEPetako ekintzen gauzatze-egoera ebaluatutako udalerrri bakoitzeko



14. irudia. TEPetako ekintzen gauzatze egoera udalerrri ebalatuaren arabera


Iturria: Bertan egina

Ezarpena gai eremuaren arabera (2009)

Aurreko ataletan adierazi dugunez, Ekintza Planek era askotako gai esparruetako ekintzak barneratzen dituzte. Ezarpen mailaren azterketa kontuan izan diren gai ezberdinen arabera egiteak, informazio adierazgarria ematen digu, adibidez, udalek zein alderditara bideratzen duten arreta eta baliabide gehiago, baina aldi berean erakusten digu alderdi horiek esku-hartze eremuak izan direla udalentsat eta jarduerak gauzatzeko gaitasun handiagoa izan dutela. Gauzatzeko gaitasun hori udalen berezko araugintza, kudeaketa eta ekonomia baliabidea izan daiteke, edota udalez gaindiko administrazioek udalen eskura jarritakoa, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundiak udalei bideratutako baliabidea. Lortutako emaitzetan honakoa azpimarratu beharko genuke:

- 2009an, ezarpen mailarik handiena izan zuten eremuak izan ziren: ura (% 43), ongizatea eta gizarteratzea (% 42), mugikortasuna eta garraioa (% 42), kultura (% 41) eta euskara (% 40). Hala ere, guztietan, helburuen azpitik dauden ezarpen mailak lortu dira (% 49,5). Gai horien ezarpen maila altua izatearen arrazoia honakoa da: eremu horiek oro har tokiko administrazioen (udalak zein mankomunitateak) eskuduntzetakoak izatea.
- Ezarpen maila baxua izan zutenak: bioaniztasuna eta ingurumena (% 29), aldaketa klimatikoa eta inpaktu globala (% 27), berdintasuna (% 25) eta ingurumen arriskua (% 18).
- Gaikako gauzatze maila 2008ko datuekin alderatuz gero, uraren inguruko ekintzen gorakada ikusten da (% 38tik % 43ra), ongizate eta gizarteratzearen ingurukoak (% 33tik % 42ra) eta lan merkatuaren ingurukoak (% 26tik % 31ra). Hala ere, ingurumen arriskuaren inguruko ekintzen beherakada ikusten da (% 28tik % 18ra).

Ezarpn maila gai esparruka (2009)



15. irudia. Ezarpn maila gai eremuaren arabera (2009)


Iturria: Udalsarea 21eko (Mugi 21) Idazkaritza Teknikoak emandako informean oinarriturik, bertan egina

Ekintzen gauzatze maila gaika (2009)

Gai eremu desberdinei buruz egindako ekintza kopuruak horietako bakoitzari eskainitako gauzatze ahaleginaren ikuspegi orokorra ematen du.

- 2009an, ezarpen mailarik altuena izan duen eremu tematikoak hauek izan ziren: mugikortasuna eta garraioa eta ongizatea eta gizarteratzea. Hori bat dator ekintza planen ezarpen eta garrantzi mailekin. 2008an, mugikortasuna eta garraioa, garapen ekonomikoa eta hondakinak izan ziren. Hau da, intentsitate maila indartu egiten da TA21en markoan, hondakinei eta mugikortasunari dagokienez.
- Gauzatze mailarik baxueneko ekintzen eremuak izan ziren elkarbizitza, ingurumen arriskua, eta aldaketa klimatikoa eta inpaktu globala. Horiek bat datoz 2008ko azterketarekin. Aldaketa klimatikoarenak bakarrik diren ekintzak urriak dira oraindik, eta eremu hori indartzekoa da hurrengo urteetan. Horretan lagunduko du, zalantzarik gabe, Energia Iraunkorrerako Ekintza Planak (EIEP) abian jartzeak.

TEPetako ekintzen ezarpen maila gai esparruka (2009)




16. irudia. Ekintzen gauzatze maila gaika (2009)

Iturria: ItUdalsarea 21eko (Mugi 21) Idazkaritza Teknikoak emandako informeetan oinarriturik, bertan egina

Zeharkakotasun maila

TA21eko Ekintza Planen erronketako bat da udal antolaketaren barruan duten zeharkako jitea, era askotako esku-hartze eremu eta baliabideak hartzen dituztelako beren baitan, eta horrek udalaren barruan eragile tekniko eta politiko askoren partaidetza eskatzen duelako. Zenbat eta handiagoa izan teknikari eta politikarien inplikazioa, orduan eta kalitate hobea izango du Tokiko Agenda 21eko prozesuak. Hori guztia bai Planaren ezarpen handiangoan eta hobean, bai administrazioaren kudeaketan eta funtzionamenduan behar den integrazioan konkretatuko da. Planen ebaluazioaren esparruan, zeharkakotasun maila da TA21a koordinatzeaz arduratzen ez den beste eragileak gauzatzen ari diren ekintzen portzentajea.

- Zerbitzuan parte hartzen duten udalerrietako Ekintza Planen batez besteko ezarpen maila, 5.000 biztanletik gorako udalerrietan, % 67,1 da. Zeharkakotasuna % 100eko duten udalerririk bat datoz biztanle gutxien duten udalerriekin (koordinatzaileak eskualde mailakoak direlako); ondoren datoz biztanle gehiagoko beste udal batzuk (kasu honetan, eskuduntzak departamentu askotan banatzen direlako).



17. irudia. Zeharkakotasun maila TEPen ezarpenean, 5.000 lagunetik gorako udalerririk erkatuz
Iturria: Bertan egina

HERRITARREN PARTE-HARTZEAREN ETA BARRUKO KOORDINAZIOAREN EBALUAZIOA

Herritarren partaidetza: Parte hartzeko lanabesak


Herritarren partaidetza Tokiko Agenda 21eko prozesuen hedapenari atxikitako faktorea da. Herritarren partaidetzarekin, alde batetik, Planen kalitatea hobetu nahi da, eta bestetik, geroko ezarpena bultzatu. Herritarren parte-hartzea egituratzearen, prozesuak jite egonkorreko parte-hartze baliabideez hornitzen dira, ez bakarrik diseinuaren prozesua lagundu eta aberasteko, baita geroko ezarpena sendotzeko ere.

Aurreko edizioetan bezala, 2010eko Planen ebaluazio Zerbitzuaren esparruan ebaluazio generikoa egin dugu, baliabide horien dinamismoa nolako den jakiteko modu orientagarrian. Ez da inolaz ere partaidetzaren kalitatearen ebaluazio kuantitatibo sakona ikusteko, baina esan daiteke balio duela lehen mailako erradiografia orokorra egiteko.

Honakoak dira ondorio nagusiak:


- Ebaluatutako udalen % 67k badu parte-hartzeko organo egonkorra, ohiz Partaidetza Foroa deitua; udalen % 25ek ez dute inolako organorik horretarako. Udalen % 8k badituzte organo osagarriak Foroan parte-hartzeko, eta horrek parte-hartzeko prozesuei kalitate handiagoa ematen die.
- Alabaina, formalki partaidetza organoak badaude ere, udalen % 37 baino ez dira foroan dinamika aipagarria erakusten dutenak. Azken bi urteetan bilerarik egin ez duten udalak % 3 dira, eta udalen % 26 behin eta bi bider baino ez dira bildu aldi horretan bertan.
- Udalerrien % 52etan egin diren parte-hartze bileretara batez beste bertaratu diren herritarrak 10-20 lagun izan dira; kasuen % 39,1etan, ordea, 5-10 lagun bertaratu dira parte-hartze bileretara.
- Udalerrien % 45etan pertzepzioa da aurten eta iaz bertaratu direnen batz bestekoa ez dela aldatu; hala ere, % 42k diote askoz gutxiago izan direla aurtengoak.
- Parte-hartzeko saioen bi herenek TA21en ebaluazio eta jarraipen prozesuen emaitzak balioztatzeko dira. % 21 helburu nagusi dituzte eguneratzeko proposamenak biltzea, programazioa eta jarduera proposamen zehatzak egin eta adostea. Haatik, funtzio hori gehienbat Plana diseinatzeke fasean garatu bada ere, kasu bakar batzuetan jarraipena izan dute gerora.
- 2010ean aurrera eramandako partaidetza saio bakar bat ere ez da izan informatzeko bakarrik, eta % 12 bakarrik izan dira kexak eta eskaerak biltzeko.
- Parte hartzeko foroetan azken urtean egin diren lanak, ekintza planari dagozkienak, jarduera programazioaren inguruko proposamenak izan dira (% 39), baita Ekintza Planaren ebaluazioaren emaitzak aurkeztea ere (% 42).

Herritarren parte hartze mekanismoa badago




- Ez dago
- Organo egonkor orokor bat dago: Parte hartze foroa
- Galen araberako parte hartze organo osagarriak daude

Herritarren parte hartze egonkorretako mekanismoen bileren maiztasuna (Foroak/Batzordeak)




- Ez dago parte hartze bilerarik
- Orain dela 2 urte ez direla bildu
- Organo iraunkorren bilera puntualak (azken 2 urtetan 1-2 biler)
- Organo iraunkorren aldizkako bilerak (urtean 2 biler baino gehiago)

Foroko parte hartze saio bakoitzeko batz besteko parte hartze kopurua




- <5
- 5-10
- 10-20
- >20

Aurreko urtearekin konparatuz, azkeneko urtean TA21eko Foro bilerara joan den pertsonen batez bestekoa




- Azkeneko urtean ez da bildu
- Asko gutxitu da
- Zerbait gutxitu da
- Mantentzen da
- Zerbait gehitu da
- Asko gehitu da

Parte hartze bilerak honelakoak dira, batik bat.....



- Informatzailea
- Kexak eta eskaerak biltzeko
- TA21aren ebaluazio eta jarraipen prozesuen balioztatzea (eguneratzea, programazioa,...)
- Eguneratze, programazio eta Tokiko Iraunkortasun Adierazleen emaitzen analisi prozesuetan proposamenak egin/ Proposamenak egin, eztabaidatu eta adostu

Azken urteko Foro bileren esparruan ondorengo lanak egin dira



- Ekintza Planaren ebaluazio emaitzen aurkezpena
- Tokiko iraunkortasun adierazleen emaitzen aurkezpena
- Programaziorako jardueren proposamenak egitea

18. irudia. Herritarren partaidetzarako baliabideen garapen eta dinamika TA21en esparruan
Iturria: Bertan egina

Udalerrri barruko koordinazioa: komunikazio baliabideak



Gorago aipatu dugunez, TA21ak modu eragingarrian hedatzeko premiazkoa da udalerrriko eragileak inplikatzeko eta koordinatzeko. Koordinazio hori egituratzeko eta eragileen partaidetza dinamizatzeko, jite egonkorreko komunikazio baliabideak gehitzen dira prozesuetara, udalaren barruan Planaren ezarpena bultzatzen laguntzeko.

Aurreko edizioan bezala, 2010eko Planen ebaluazio Zerbitzuaren esparruan ebaluazio generikoa egin dugu, baliabide horien dinamismoa nolakoa den jakiteko modu orientagarrian. Herritarren partaidetzaren kasuan bezala, ebaluazio hori ez da barruko komunikazioaren kalitateari buruzko ebaluazio kualitatibo sakona, baina balio dezake ikuspegi orokor bat izateko.



Honakoak dira ondorio nagusiak:

- Udalerrrien erdiak jada TA21en barruan dauden koordinazio teknikorako mekanismo orokorrak dituzte. Aipatzekoa da % 21ek organo bereziak sortu dituztela, batez ere nolabaiteko tamaina duten udalerriek.
- Oro har, koordinazio teknikorako baliabideek bilerak egiten dituzte urtero-urtero, alabaina parte hartzen duten udalen heren batek ez du koordinaziorako bilerarik egiten.
- Koordinazioa ez da oraindik finkatu Planeko jardueren programazioan organo erabakitzailerik gisa, Plana bera eguneratzeari edo adierazlearen azterketari dagokienez, baina TA21 kudeatzeko eredia finkatu ahala, funtzio horiek ere finkatuz joango direla aurreikusten da.



TA21aren ezarpeneko koordinazio teknikorako mekanismo egonkorra badago (Udal Iraunkortasunerako Batzordea-UIB)



Koordinazio teknikorako mekanismo iraunkorren bileren maiztasuna



Parte hartze bilerek honelakoak dira, batik



20. irudia. Barruko komunikazio teknikorako baliabideen garapen eta dinamika TA21en esparruan

Iturria: Bertan egina

GFA-REN POLITIKA ESTRATEGIKOEN ERAGINKORTASUNAREN EBALUAZIOA TA21-AK EZARTZEN LAGUNTZEKO

Sarrera

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentuak parte hartzen du, udalekin eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailarekin batera, tokiko ekintza planen ezarpenean, eta horretarako diru laguntzak bideratzen ditu tokiko ekintza planei zuzenean lotuta dauden ekintzetara. Udalek baliabide ekonomikorik eza dute ekintzak ezartzeko, eta, ondorioz, baliabideak eta esku hartzeko lanabesak beste noranzko batean bideratu behar izan dira: tokiko iraunkortasuneko estrategiak garatzearen alde.

Zentzu honetan, beharrezkoa da laguntza ildoen irisgarritasuna neurtzea Gipuzkoako udaletan aurkeztutako diru laguntzen eskaeren azterketaren bidez, Foru Aldundiaren diru laguntzen erregistroaren bidez eta diru laguntza jaso duten proiektuen memorien bidez.

Helburu nagusia

Modu sinplifikatuan ebaluatzea zein izan den GFAk TA21en ezarpenaren alde bultzatu dituen laguntza ildoen eragina.

Berariazko helburuak

GFAREN politika berezien eraginkortasunaren ebaluazioak oinarritzko helburu hauek ditu:

- TA21 ezartzeko GFAREN euskarri-ildo zuzenen irisgarritasuna ezaugarritzea (TA21en ekintzak eta hondakinen prebentzioa diruz laguntzea).
- Ekintza Planak ezartzearen eragina ebaluatzea, globalki eta gaika, ekintzen tipologiaren arabera eta udalerrien arabera.

Orobat, beste helburu osagarri batzuk lortu nahi dira:

- TA21 ezartzeko GFAREN zeharkako euskarri-ildoen irisgarritasuna ezaugarritzea.

Orobat, egoki ikusten da ildoak ekartzea hurrengo edizioetan ingurumena, gizartea edo ekonomia hobetzeko euskarri-ildoen eragin induzitua ebaluatzeko.


TA21 ezartzeko GFaren euskarri-ildo zuzenen irisgarritasuna.

Finantzatutako proiektu kopurua eta bideratutako aurrekontu globala


Tokiko Agenda 21eko ekintza planak gauzatzearen eta hondakinen sorreraren planifikazioa egitearren Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalei emandako diru laguntzen eskaerak ebatzi eta egin diren txostenetatik, finantzatutako proiektu kopuruaren eta urteroko aurrekontu globalaren eboluzioa lortu dugu. Oro har, nabarmentzekoa da:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako proiektu kopurua murriztu egin da deialdia egon zen azken urtearekiko. Tokiko Ekintzen Planak gauzatzen laguntzeko, 37 proiektu onartu ziren 2010ean (2008an baino % 11 gutxiago), eta hondakinen sorreraren prebentziorako 21 proiektu 2009an (2008an baino % 25 gutxiago). Bilakaera hori bat dator egoera ekonomikoak agintzen zuenarekin: herri administrazioen gastuen murrizketa orokorra.
- TEPak bultzatzeko aurrekontua % 20 murriztu zen 2008 eta 2010 artean, 643.000 € izanik. Nabarmentzekoa da lehenago % 100 handitu zela 2006. eta 2007. urteetan. Hondakinen sorreraren prebentziorako, zenbatekoak egonkorragoak izan dira 2006-2008 aldian; alabaina, 2009an aurrekontua % 55 murriztu zen, ia 256.000 €.

Hondakinen sorreraren prebentziorako eta TEPen ezarpena bultzatzeko finantzatutako proiektuen eboluzioa.



Hondakinen sorreraren prebentzioa eta TEPen ezarpenaren bultzada finantzatutako aurrekontuaren eboluzioa (€)





22. irudia: finantzatutako proiektu kopuruaren bilakaera eta diruz lagundutako aurrekontua hondakinen sorrerarako prebentziorako eta TEPak bultzatzeko

Iturria: Bertan egina

Finantzatutako proiektuen banaketa gaika

Aurreko ataletan adierazi dugunez, Ekintza Planetako ekintza bakoitzak gai esparru jakin bati eragiten dio. Finantzaketa proiektuen banaketa gaika eginez gero, aukera dugu jakiteko zein udalerritan eman zaien lehentasuna euskarri ekonomikoko eskaerei dagokion ekintza aurrera eramateko. Zentzu horretan, hau nabarmentzen dugu:

- Finantzatutako proiektuak kontuan hartutako 24 eremu tematikoetatik 3tan daude. Lehenik nabarmentzen dira Energia eta Mugikortasuna eta garraioa, diruz lagundutako proiektu guztien % 70,3 eta % 27,0 hartzen baitute hurrenez hurren, eta bigarrenik Urarekin zerikusia dutenak, diru laguntzen % 2,7 hartzen baitute. Finantzazioa eremu horietan fokalizatzea arrazoizkoa da, udal kudeaketan garrantzi handia, gero eta handiagoa, baitute; izan ere, udalek zail daukate baliabide propioekin edo bestelako finantzazio ildoekin horiei aurre egitea.
- Finantzatutako lehentasunezko eremuak dira: tokiko alorretik, energia aurrezteko ekintzaren oinarriak eta aldaketa klimatikoa murriztekoak. Hori koherentea da administrazio maila guztietatik jarraitzen diren iraunkortasun politiken erronkekin.
- Finantzatutako zatirik handiena energia kontsumoari murrizteko helburua duten proiektuek eraman dute (% 77,0), eta, horiekin batera, Mugikortasunak eta garraioak (% 21,0). Urarekin zerikusia dutenen finantzazioa oso txikia da aurrekoekin alderatuz gero (% 2,0).



23. Irudia: Finantzatutako proiektuak eta aurrekontua gaika


Iturria: Bertan egina

Aalborgeko konpromisoekin finantzaturako proiektuen banaketa

Gaiei lotutako ekintzek Aalborgeko Konpromisoak betetzen laguntzen dute, iraunkortasunaren ekintzarentzat mugarri diren helburuak baitira konpromiso horrenak. Aalborgeko konpromisoen arabera finantzaturako proiektuen banaketa,

- Diru laguntzak Aalborgeko Konpromisoari bakarrik atxiki daude: 3. Ondasun natural komunak; eta 6. Mugikortasun hobeketa eta trafikoaren murrizketa.
- Diruz lagundutako proiektu gehien dituen Aalborgeko konpromisoa hau da: 3. Ondasun natural komunak (% 73,0), 27 diru laguntzekin, guztira 37 direlarik.
- Bigarren finantzaziorik handiena duen konpromisoa: 6. Mugikortasun hobeketa eta trafikoaren murrizketa (% 27,0); 10 proiektu.

Aalborg-eko konpromisoekiko finantzaturako proiektuen banaketa



24. Irudia: Aalborgeko konpromisoekin finantzaturako proiektuen aurrekontuaren banaketa

Iturria: Bertan egina

Ekintza Planak ezartzeko laguntzen eragina eta ingurumenaren hobekuntza

Ekintza Planen ezarpenaren eragina

Planen ezarpenean laguntzek izan duten eraginaren alderdi nagusiak hauek dira:

- 2010ean, Gipuzkoako Foru Aldundiak Tokiko Agenden Ekintza Planak gauzatzen laguntzeko zerbitzuaren bidez, 37 proiektu lagundu ditu diruz.
- Udalek energia proiektuetan egin duten gastuaren zati nabarmen bat berreskuragarria da nahikoa epe laburrean; izan ere, kasu askotan, herriaren argiteriaren kontsumoaren faktura elektrikoan aurrezpena izango baita.
- Planak ezartzeko laguntzen eragina bereziki nabarmena da baliabide ekonomikoak mugitzen dituen aldetik eta ekintzen tipologiari begiratuta, eta ez da hain nabarmena Planen ezarpen globalaren portzentajeari begiratuta.
- 2010an, diruz lagundutako proiektuen kostu osoa 1.461.444,21 euro izan da. Foru Aldundiak 643.000 euro ekarri ditu, proiektuen kostuaren % 34 eta % 63,22 artean. Horrek esan nahi du udalek batzaz beste % 55eko kofinantzazioa egin dutela.

Ingurumen hobekuntzetan izandako eragina, euskarri ildoekin induzitua

Finantzatutako proiektuek udaletako iraunkortasun adierazleen hobekuntzari laguntzen diote, baina informazio eskuragarriak eta zerbitzuaren irismenak ez dute uzten eraginaren ebaluazio kuantitatiboa egiten. Hala ere, hauek esan daitezke:

- Finantzatutako proiektuen izaeragatik, espero litezkeen ingurumen hobekuntzak hauekin duten zerikusia: tokiko administrazioaren energia kontsumoaren murrizpena, tokiko administrazioaren CO₂ emisioen murrizpena, energia berriztagarrien tokiko ekoizpenaren igoera eta bizikleta bidezko, oinezko eta garraio publikoko garraioren igoera.
- Diru laguntza eskaeretan, informazio osagarriaren eskaera sartzeko interesa nabarmentzen da, hartara ingurumen hobekuntzaren eraginaren kalkulua errazteko eta, ondorioz, neurrien eraginkortasunaren eta kostu-etekin erlazioaren ebaluazioa egiteko.

